

DEIA BAI, DEIALDIA EZ.—Euskeraz beti izan dira «aldia» atzealdean daroen berbak: eguraldia, astiñaldia, itzaldia ta abar. Ta dirudianez, berba barriak sortzeko balio andikoa da. Beintzat ormetan-da ipinten diran esanetan berba orregaz egindako ugari arkitzen da: ibillaldia, dantzaldia, jaialdia, ta abar. Ez dot ezer euren aurka. Baiña ba-da orratio orrein antzeko berba bat nire ustez egokia ez dana: deialdia. Udalak-eta erderazko «convocatoria», «aviso» ta olakoen esanaian erabilten dabe euskeraz. Ta ez; berba orrein esanaikoa «deia» da, olantxe luzatu barik.

Ondarru'n len, gure ume eta gazte denporetan eta Jaungoikoak daki noiztik, asko erabilten zen berba au. Arrantzaleai egunero deitu egiten eutsen itxasora besigutara juateko neguan. Egualdi txarra izan ezkerio ez ziran itxasoratzen eta lotan lagaten eutsen; baiña egualdi ona zanean edo txarra ez zanean, zeregin ori euken seiñeruak izeneko iru edo lau lagunek (eurak be arrantzaleak eta itxasora joaten ziranak) erri guztian kale bakotxean iru edo lau tokitan maillu batekin atari edo beko atea maillugaz joten eben, bakotxean iru ots emonaz; dan-dan. Ta arrantzaleakaz batera beste asko be esnatzen zituen goizeko iruretan, lauretan, edo egun aretako itxasorateari ondo etorkion orduan.

Ta ori «deia» zan, ondarrutarrez «dexe». «Ez dot deirik entzun gaur», «Berandu jo dabe dexe» ta antzekoak asko esan eta entzuten ziran orduan.

Berba au orduko beste kontu bat agertzeko be ba-zan: «deiko mezea». Orduan igande ta jaietan be juaten ziran arrantzara itxasora. Ta neguan urten aurrean mezea izaten zan arrantzaleentzat esan doguzan orduetan eta zazpireun-zortzireun gizon itxasorako jantzita eta oiñetan zarata andia ataraten eben olezko bota-traskuak zituela juango ziran mezatarata ta eliza guztia beteten eben.

Ta meza aren izena «deiko mezea» zan, «deiko mezi» ondarrutarrez.

Ta onenbestegaz, asieran esandakoa barritauaz amaituko dot, zera erderazko «convocatoria», «aviso», «llamada» ta olako berben esanaia euskeraz «dei» (deia) berbeak dabela.

Beraz «deialdia» iñork ez leuke erabili bear.